

BESTELAKO XEDAPENAK

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

212

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 9koa, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordearena, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2024ko uztailaren 17ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntzen eskabideak ebazten dituen. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako establezimenduak dituzten erakundeei laguntza ekonomikoak emateko oinarriak onartu ziren, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzearen arloko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko, eta 2024rako deialdia egin zen.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2024ko uztailaren 17ko Agindua-
ren bidez (2024ko abuztuaren 21eko EHAA, 162. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei laguntza ekonomikoak emateko oinarriak onartu ziren, bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzearen arloko egoeraren diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko. Agindu horren deialdia 2024. urterako egin zen.

Eskaera egiteko epea irailaren 30ean amaitu zen, eta guztira 18 eskabide aurkeztu ziren.

11. oinarrian adierazitako emate-prozedurarekin bat etorritik, Balorazio Batzordea 2024ko azaroaren 18an bildu zen eta jasotako eskabideak banan-banan ebaluatu zituen, 12. oinarrian zehaztutako balorazio-irizpideen arabera. Egindako ebaluazioaren emaitza jakinarazteko eta proiektu teknikoan puntuazio altuena duten erakundeak onuradun gisa proposatzeko –aurrekontu-kreditua agortu arte– txosten bat idatzi zen.

Balorazio Batzordeak egindako txostenean adierazten denez, guztira 18 erakunde aurkeztu ziren deialdira, eta guztien eskabideak onartu ziren. Gainera, kasu guztietan, aurkeztutako proiektuek 11. oinarrian eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu dute (100etik 50) eta erakundeek eskatutako kopuruak bat datoz aginduan adierazitako parametroekin.

2024ko uztailaren 17ko Aginduan oinarrituta, eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 15.1 artikularekin lotuta, laguntza hau kudeatzeko organo eskuduna Haur, Nerabe eta Familia Zuzendaritza da.

Balorazio Batzordearen txostenean proposatutako zenbatekoen guztizko batura dirulaguntzen lerroari esleitutako aurrekontu-kreditua baino txikiagoa dela egiaztatuta, eta aginduan ezarritako prozedurari jarraituz, 2024ko azaroaren 21ean, Haur, Nerabe eta Familien zuzendariak behin betiko ebazpen-proposamena egin zuen. Bertan, onuradun gisa proposatutako erakundeak ezarri zituen, lortutako puntuazioaren eta bakoitzari emandako zenbatekoaren arabera ordenatuta.

Ebazpen-proposamen hori azaroaren 22an jakinarazi zitzaizen erakunde onuradun guztiei. Jakinarazpena egin ondoren, 10 eguneko epea ireki zen emandako laguntza onartzen zutela komunikatzeko, eta hala egin ezean, onuradun gisa proposatutako erakundeak eskabideari uko egiten diola ulertuko zela adierazi zen.

Ebazpen honen egunean, erakunde onuradun guztiek berriaz adierazi dute laguntza onartzen dutela.

Beraz, Haur, Nerabe eta Familien zuzendariak emandako behin betiko ebazpen-proposamena onartuta, eta erakunde onuradun guztiek laguntza berariaz onartuta, dirulaguntzak ebazteko organo eskuduna den aldetik, 2024ko uztailaren 17ko Aginduaren 14. oinarrian xedatutakoaren arabera, eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 15.1 artikuluekin bat etorritz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean zerrendatzen diren erakunde eskatzaileei bertan zehazten diren kopuruak ematea, egoeraren diagnostikoa eta bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteko ekintza-plana egiteko laguntza gisa.

Bigarrena.– Laguntzak zatika ordaintzeko agintzea. Lehenengo zatia, emandako dirulaguntzaren % 50ari dagokiona, dirulaguntza ematen den unean ordainduko da, eta gainerako % 50a, jarduketa guztiak egin eta sortutako gastu guztiak 2024ko uztailaren 17ko Aginduaren 16. oinarrian zehaztutako moduan justifikatu ondoren, 2025eko ekainaren 30a baino lehen.

Hirugarrena.– Erakunde onuradunek agindu arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esparruan oro har indarrean dauden gainerako baldintza guztiak ere.

Laugarrena.– Ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzea (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>), eta argitalpen horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu.

Era berean, dirulaguntzaren erakunde onuradunen zerrenda EHAA-n argitaratuko da, izaera orokorreko publizitatea egiteko.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita, betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 9a.

Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordea,
XABIER LEGARRETA GABILONDO.

2025eko urtarrilaren 15a, asteazkena

ERANSKINA

ONARTUTAKO ESKAERAK

Espediente zk.	Erakundea	IFZ/IFK	Punt.	Emandako zenbatekoa	1. Ordainketa (% 50)	2. Ordainketa (% 50)
0016-KON-2024	Myruns Engineering Sports, S.L.	B75106492	93,5	4.410,00 €	2.205,00 €	2.205,00 €
0010-KON-2024	Jaz Zubiaurre, S.A.	A20091518	92	5.880,00 €	2.940,00 €	2.940,00 €
0014-KON-2024	Santo Tomas Lizeoa Loistarain, Kooperatiba Elkartea	F20029096	90	9.100,00 €	4.550,00 €	4.550,00 €
0015-KON-2024	Matz Erreka, S. Coop.	F20025268	87	10.360,00 €	5.180,00 €	5.180,00 €
0007-KON-2024	Irsearaba, S. Coop.	F72957574	84	10.248,70 €	5.124,35 €	5.124,35 €
0018-KON-2024	Residencia Mezo, Sociedad Limitada	B95814539	84	4.900,00 €	2.450,00 €	2.450,00 €
0005-KON-2024	Cruz Roja Española	Q2866001G	83,5	10.500,00 €	5.250,00 €	5.250,00 €
0011-KON-2024	Asociación Empresarial ASLE	G48156996	81,5	3.150,00 €	1.575,00 €	1.575,00 €
0003-KON-2024	Fundación Lantegi Batuak	G48945166	77	10.465,00 €	5.232,50 €	5.232,50 €
0017-KON-2024	Construcciones Zabalandi, Sociedad Limitada	B48534317	73	5.460,00 €	2.730,00 €	2.730,00 €
0013-KON-2024	Asoc. Gaude en favor de personas con discapacidad intelectual	G48130793	72	7.336,00 €	3.668,00 €	3.668,00 €
0008-KON-2024	Voith Paper, S.A.	A20003760	62,5	9.800,00 €	4.900,00 €	4.900,00 €
0002-KON-2024	Akting Ingeniaritza, S.L.	B20942280	61	2.415,00 €	1.207,50 €	1.207,50 €
0009-KON-2024	Compañía de servicios sociales San Ignacio, S.A.	A20016036	60,5	8.820,00 €	4.410,00 €	4.410,00 €
0001-KON-2024	Viuda de Sainz, S.L.	B48154348	60	9.800,00 €	4.900,00 €	4.900,00 €
0012-KON-2024	Asoc. para para la promocion del comercio urbano de Vitoria-Gasteiz	G01420546	58	2.380,00 €	1.190,00 €	1.190,00 €
0004-KON-2024	Construcciones Mariezcurrena, S.L.	B31083199	57,5	5.600,00 €	2.800,00 €	2.800,00 €
0006-KON-2024	Construcciones Zubieder, S.L.	B20619722	57,5	3.850,00 €	1.925,00 €	1.925,00 €
				124.474,70 €	62.237,35 €	62.237,35 €